




ESKU-HARTZEA
INTERVENCIÓN



1. Euskarria

1.1. Araldit

Ez zegokion moduan jarritako araldit guztia baliabide mekanikoz kendu da.

1.2. Intsektuak akabatzea

Erretaulako piezei berriro eman zitzaizen intsektuak akabatzeko tratamendua, batzuei gas geldo baten bidez, baina zailtasun praktikoak zirela eta, likido bidez egitea erabaki zen, hurrena piezak poltsa hermetikoetan itxiz berrogeialdia igaro arte.

1.3. Egitura arkitektonikoaren berreraikuntza

1. Soporte

1.1. Araldit

Todo el araldit colocado inadecuadamente ha sido eliminado de forma mecánica.

1.2. Desinsectación

Las piezas del retablo fueron desinsectadas nuevamente, parte con gas inerte, pero dadas las dificultades prácticas, se optó por desinsectarlo con líquidos y encerrar las piezas en bolsas herméticas hasta pasar la cuarentena.

1.3. Reconstrucción de la estructura arquitectónica

a)



b)



c)



Frisoa zaharberritzeko prozesua.

- a) Bankuko frisoko jatorrizko egoera.
- b) Berreraikitze prozesuan.
- c) Berreraikitze lana amaituta.

Proceso de restauración del friso.

- a) Estado original del friso del banco.
- b) En proceso de reconstrucción.
- c) Finalizada la reconstrucción.

Ikusten denari dagokionez, erretaula zaharberitu aurretik zegoen moduan dago, barreneko aldean ezin izan zuten erasoak jasari, berreraiki egin baita gaztainazura erabiliz egitura-inguruetan, eta makala, berriz, zona bigunetan. *Araldit* berreraikuntza lan txikietan erabili da, lerro eta formen jarraitasuna lortzeko.

Zaharberitze hau honakootan bildu da:

- Termitek galdarazitako egitura-euskarriak sortzea:
 - a. Espazio jan eta hutsak betetzeko zura txertatu da, barruan geratutako lohi eta *araldit* hondarrak aurrez garbituta inolaz ere (taulamenduak).
 - b. Bistako egitura-inguruetan zura txertatu da, esaterako erlaitz, oinarri eta abarretan, eta zur hori (gaztaina eta makala) tailatu.
 - c. Eszenetan, xilofagoek eraso egindako zona hutsak hustu egin dira, gaztaina-zurezko takoz osatzeko ondoren.
 - d. 1968ko azken esku-hartzean kendu zituzten ziriak berregin dira.

A nivel visual, el retablo mantiene la misma disposición que poseía antes de su restauración, excepto la parte interior del retablo, atacada por la termita, que ha sido reconstruida con madera de castaño en sus zonas estructurales y de chopo, en las zonas más blandas. El *araldit* se ha utilizado en reconstrucciones pequeñas para lograr una continuidad de línea y de forma.

Esta reconstrucción se ha centrado en:

- Creación de los soportes estructurales desaparecidos por la acción de la termita :
 - a. Relleno con injertos de madera de los espacios carcomidos y vacíos, previa limpieza de los restos de barro y *araldit* dejados en su interior (entablamentos).
 - b. Injertos en zonas estructurales vistas como cornisas, bases, etc., y talla de las mismas (castaño y chopo).
 - c. Vaciado, en las escenas, de las zonas huecas y atacadas por los xilófagos, para ser completadas con tacos de madera de castaño.
 - d. Reconstrucción de lengüetas y tubillones que habían sido eliminadas en la última intervención del año 1968.

a)



Zura saneatzeko prozesua.

- a) Jatorrizko egoera.
- b) Hondarrak kentzeko prozesua.
- c) Zur berriaz saneatzea.

Proceso de saneamiento de la madera.

- a) Estado original.
- b) Proceso de eliminación de restos.
- c) Saneamiento con madera nueva.

b)



c)

d)



Zura saneatzeko prozesua.
d) Bista-bistan txertatutako zura, aurrealdean.
e) Azkeneko akabera (xehetasuna).



e)

Proceso de saneamiento de la madera.
d) Injertos vistos por la parte delantera.
e) Acabado final (detalle).

2. Polikromia

2.1. Kolorea finkatzea

Kolorea finkatzeko, untxi kola eta beroa eta arindutako poli-binilo azetatoa erabili dira.

2.2. Garbiketa

Garbiketarako 3A, 4A, dimetilsulfoxidoa + butilazetatoa (1:1) eta gomazko lapitza erabili da haragi-koloreetarako, nahiz toki jakin batzuetan dimetila eta amilo azetatoa erabili diren berniz edo paraloid geruzak kentzeko.

2. Policromía

2.1. Sentado de color

El sentado de color se ha llevado a cabo con cola de conejo y calor y acetato de polivinilo rebajado.

2.2. Limpieza

La limpieza se ha realizado con las 3A, 4A, dimetilsulfóxido + butilacetato (1:1) y lápiz de goma para las carnaciones, aunque en zonas precisas se ha utilizado el dimetil y acetato de amilo para eliminar capas de barniz o paraloid.

Zaharberritu aurretik eta ondoren.
Antes y después de la restauración.



Argizaria kentzeko, beroa (Leister) eta W. Sprit erabili dira.

Urreztatu garbitzeko DMF eta azetatoa, 3A, eta Masschelein-Kleiner-en 21 zk.ko prestakina erabili dira, azken honi hainbat aldaketa eginez.

La cera se ha eliminado con calor (Leister) y W. Sprit.

La limpieza del dorado se ha utilizado DMF y acetato, 3A, y la preparación nº 21 de Masschelein-Kleiner con variantes.



Garbitze prozesuan dauden irudiak.
Figuras en proceso de limpieza.



Gardendu berdeak garbitzea ia-ia ezinezkoa izan da. Zona batzuetan, gardendu hauek maila batean garbitzea lortzen zen, baina beste batzuetan, asko ahaleginduz gero, gardendua askatu egiten zen; beraz, garbitze lan hau masa marroi iluna ahalik eta gehien kentzera mugatu da, garden-duak uzten zuen neurrian. Horretarako 3A eta 4A erabili dira, emaitza kaxkarrez erabili ere. Dimetil/azetatoak kentzen zuen zerbait, baina hainbat zonatan arriskutsua zen. Dimetilsulfoxidoa+butilazetatoa eta amilo azetatoa eraginkorrak izan dira zona batzuetan, esaterako kolomen barnealdean, baina oro har ez dute emaitza handirik eman. Izan ere, asko ahalegintzea arriskutsua zen. Halaz, formula hauek guztiek marroiari lodiera pixka bat kentzeko balio izan dute, eta gardenduaren kolore berdea agerixeago uzteko.

Gardendu urdina erraz kentzen zen uraz, zeren eta azurita eta animal kolaz egin zegoen.

Jantziak polikromiatarako erabili diren formulak 3A, listua, DMF+toluenoa, DMF+azetatoa eta dimetilsulfoxidoa+butilazetatoa izan dira.

2.3. Iztukatua

Iztukua igeltsu hil eta animal kolaz egin da. Obra ahalik eta mailarik handiengan errespetatu da, guri iritsi zaigun moduan alegia, baina egoki iritzi diogu hainbat zati iztuka-tzeari, obraren irakurketa hobe bat izateko eta obrari berari batasun handiago emateko.

a)



Iztukatua.

- a) Berreraikitze eta iztukatze prozesuan.
- b) Azkeneko akabera.

Estucado.

- a) En proceso de reconstrucción y estucado.
- b) Acabado final.

2.4. Berregite kromatikoa

Berregite kromatikoa haragi-koloreetan egin da, akuarela eta Maimeri bernizezko pigmentuak erabiliz eta rigattino teknika eta ilusionistak landuz.

Las corlas verdes han resultado casi imposibles de limpiar. En zonas, éstas se dejaban limpiar hasta un cierto grado, pero en otras la insistencia hacía que ésta se desprendiese, por lo tanto, la limpieza ha consistido en aligerar la masa marrón oscura, allí donde la propia corla lo permitía. Para ello se ha utilizado las 3A o 4A con escaso resultado. El dimetil/acetato eliminaba algo, pero en zonas resultaba peligroso. El dimetilsulfóxido+ butilacetato y acetato de amilo, han actuado bien en algunas zonas, como en la parte interna de las columnas, pero en general ha sido de escaso rendimiento. La insistencia lo hacía peligroso. Todas estas formulas solo han servido para aligerar el espesor marrón y dejar traslucir algo el color verde de la corla.

La corla azul se iba fácilmente con agua, ya que ésta estaba compuesta de azurita y cola animal.

Para las policromías de los vestidos las formulas utilizadas han sido las 3A, la saliva, DMF+tolueno, DMF+ acetato y dimetilsulfóxido +butilacetato.

2.3. Estucado

Se ha estucado con yeso mate y cola animal. Se ha tenido el mayor respeto por la obra tal y como ha llegado a nosotros, pero hemos considerado conveniente estucar zonas o partes, para poder obtener una mejor lectura y darle una mayor unidad a la obra.

b)



2.4. Reintegración cromática

La reintegración cromática se ha llevado a cabo en las carnaciones, usando acuarela y pigmentos al barniz Maimeri usando las técnicas de rigattino e ilusionistas.

2.5. Urrea birjartzea

Beharbada hauxe izan da erretaularen zailtasun handienetakoa bat, inguru guztietan duen urre kantitatea dela eta.

2.5. Reintegración del oro

Quizá ésta ha sido una de las grandes dificultades del retablo, dada la cantidad de oro existente en toda su superficie.



a)

Berregitea.
a) Berregite lanaren hasiera.
b) Amaituta.
c) Amaituta.
d) Emaitzia orokorra.

Reintegración.
a) Inicio de la reintegración.
b) Finalizado.
c) Finalizado.
d) Resultado global.



b)



c)



d)

Egitura-zonak urrezko orriz berrosatzea erabaki zen, hala nola: eszenetako markoak, erlaitzetako zuloak, taulamenduak eta araldita bistan zegoen inguruak. Behin aplikatu eta gero, altzairuzko ilupaz, akuarelaz eta pigmentuz zahartu zen.

Berreraikitako zona gehienak bistako zurez mantendu dira.

Irudiei, hau da, eskultura eta erliebeei dagokienez, beste modu batez jardun da. Berregite bat izan den espazioetan, hala nola arropa eta hondoetan, iriodina erabili da. Honen aplikaziorako prozedura honakoa izan da: Lehen fasean, iriodina bol gainean aplikatu zen, rigattino teknikaz, baina zalantzazko emaitza lortu zen, estetikari begiratuta. Hainbat proba egin ondoren, iriodina iztuku zuriaren gainean bertan eman zen, azpi homogeen eta trinko bat sortuz; hurrena, berregite kromatikoa zertu zen, rigattino teknikaz eta pigmentuak erabilita. Teknika honen abantaila nagusia oso itzulgarria eta kentzen oso erraza izatea da.

Urreztatua eta polikromia galdu izanaren ondorioz zura bistan duten zonak garbitu egin dira eta, kasu askotan, zura bera argitu egin da azido oxalikoa erabilita, urreztatuaren kolorea eta zurarena berdintzearen hain zuzen.

Aldare-mahaiko aurrealdea, desagertua zena, berreraiki egin da, argazki zaharretan jasotakoari jarraiki. Polikromia ere berregin egin da, hain multzo urreztatu eta polikromatuen zurezko multzo handi horrek, bistan egotean, horrenbesteko eraginik sor ez zezan.

Se decidió reintegrar con lámina de oro las zonas estructurales: marcos de las escenas, agujeros de las cornisas, entablamentos y en zonas donde el araldit estaba a la vista. Una vez aplicado se envejeció con lanilla de acero, acuarela y pigmentos.

La mayor parte de las zonas reconstruidas se han mantenido en madera vista.

Con respecto a las figuras, es decir, a las esculturas y a los relieves, se ha procedido de otra manera. En aquellos espacios que exigían una reintegración, tanto en ropajes, como fondos, se ha utilizado el iriodin aplicándolo de esta manera. En una primera fase el iriodin se aplicó sobre bol con la técnica de rigattino, pero con un resultado estéticamente dudoso. Después de varias pruebas, se aplicó el iriodin sobre el propio estuco blanco, creando una base homogénea y compacta, para aplicar a continuación la reintegración cromática a rigattino con pigmentos. La ventaja que presenta esta técnica es su gran reversibilidad y su fácil eliminación.

Las zonas de madera vista, a consecuencia de la pérdida del dorado y de la policromía, han sido limpiadas y en muchos casos, la madera ha sido aclarada con ácido oxálico con la intención de igualar el color del dorado y el de la madera.

El frontal de la mesa del altar que había desaparecido ha sido reconstruido en base a fotografías antiguas. Se ha reproducido la policromía con la intención de eliminar el impacto que producía una masa tan grande de madera en un conjunto tan dorado y policromado.

Berreraikitako aldare-mahaiaren aurrealdea.

Frontal de la mesa de altar reconstruido.

